

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Gasteizko HAPOn aurrerapenaren agiria jendaurrean jartzea

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urtarrilaren 31n egindako ohiko bilkuran:

1. Trion-Usandizaga y Ekain PGOU Vitoria-Gasteiz aldi baterako enpresa-elkarteak idatzitako Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerapenaren agiria jendaurrean jartzea, bi hilabetez, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzat dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

ALHAOn, Udalaren ediktu-taulan eta lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietako bitan iragarriko da jendaurreko erakustaldia.

Udalaren webgunean —<https://www.vitoria-gasteiz.org>— egongo da eskuragarri dokumentazioa.

2. Aurrerapenaren dokumentua, hasierako dokumentu estrategikoarekin batera, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritzara igortzea, organo horrek ingurumen-azterketa estrategikoaren irismenaren dokumentua egin dezan, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17.2 artikulua ildotik.

3. Aurrerapenaren dokumentua udalerrri mugakideei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen, baita Gasteizko udalerriko administrazio-batzarrei ere, proposatutako antolamendu estrukturalaren oinarritzko alderdien inguruko txostena egin dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 6an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE